

Maiatzerako ekitaldi ugari prestatu du fakultateko Euskara Batzordeak

2015/04/24

"Udaberri Kultura" izenean, ekitaldi ugari prestatu ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Euskara Batzordeak. Hala, maiatzean zehar, hitzaldiak, bertso saioak, antzerkia eta jaiak antolatu dituzten Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusean. Ekitaldi guztiak doakoak dira herritar guztiei irekita daude. Fakultateko ikasleek eta irakasleek osatzen dute Euskara Batzordea.

Egitaraua

- **Maiatzak 6.** Sexu tailerra: *Haurren sexualitatea: ezagutu, ulertu, onartu*. Hizlaria: Nerea Sancho Esnaola, EHUko Psikologia Fakultateko irakasle elkartua, sexologian aditua, Hernani eta Azpeitiako Plax! Sexu aholkularitzen eta Bitxigorria Sexologia Zerbitzuaren Arduraduna. 11:00etatik 14:00etara. Eskoriatzako campusean.
- **Maiatzak 12.** "Bertxio" bertso saioa: Miren Amuriza, Oihana Bartra eta Alaia Martin.
- **Maiatzak 13.** Antzerkia: *Konpota*. Dxuturi teatroa. Eskoriatzako campusean.
- **Maiatzak 20.** Kantaldia: Josu Zubia + talde sorpresa. Aretxabaletako campusean.
- **Maiatzak 22.** Txomin Txapel, fakultateko jaiak.



Udaberri Kulturalaren kartela.